

Lehen hezkuntza (LH3 eta LH4)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3



IKASGAIA	GAI EKOSIZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekodependentzia</li> <li>Krisi zibilizatorioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Biodibertsitatea</li> <li>Ohitura jasagarriak</li> </ul>



## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Biodibertsitatea da gure planetako bizitzaren aberastasuna. Animaliak gure planetan bizi diren izaki bizidunak dira, eta berebiziko garrantzia dute ekosistemetan. Garrantzitsua da ikasleak espezie horiek eta haien habitata babestearen garrantziaz kontzientziatzea, eta ingurumenarekiko errespetu eta kontserbazio jarrerak sustatzea. Espezie bakoitza erabakigarria da ekosistemaren orekan. Baina zer gertatzen da gure ekintzek eta ohiturek ziklo natural hori puskatzen dutenean?

### Abiapuntua

*Talde lanean arituz animalien erreinuan dagoen aniztasuna, sailkapen ezberdinak, ekosistema eta elika kateen garrantzia, espezie inbaditzaileak, arriskuan dauden animaliak, gizakiaren esku hartzea animalien munduan eta beste hainbat kontu esploratuko dituzte. Jarduera praktikoen bidez, ikasleek biodibertsitatea kontserbatzeko eta gure planeta partekatzen duten animaliak babesteko beharra ulertuko dute.*

**AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.** Animalien irudi ezberdinak erabiliz mezu ezkutu bat idatzi beharko dute beraiek nahi duten pertsonari helarazteko.

## HELBURU KOMPETENTZIALAK


- Animaliak ornodunetan eta ornogabeetan identifikatu eta sailkatzeko kapaz izatea, talde bakoitzaren adibideak emanez.
- Animalia ornodunen ezaugarri nagusiak ikastea (ugaztunak, hegaztiak, narrastiak, anfibioak eta arrainak) eta ornogabekoenak ere (intsektuak, araknidoak, moluskoak...)
- Ekosistema kontzeptua ezagutzea.
- Elikatze-kateen kontzeptua ulertzea eta kate horien adibide sinpleak identifikatu eta sortzeko kapaz izatea ekosistema desberdinetan.
- Animalia obiparokoak eta biparokoak bereizten ikastea mota bakoitzeko adibideak emanez.
- Metamorfosiaren kontzeptua ezagutzea.
- Desagertzeko arriskuan dauden animalia batzuk ezagutzea, baita haien egoeraren arrazoiak eta biodibertsitatearen galeraren ondorioak ere.
- Espezie inbaditzaileen kontzeptua ezagutzea eta adibide batzuk ikastea.
- Animalien zaintzarekiko erantzukizun-zentzua garatzea, espezieak eta haien habitata babesten nola lagun dezaketen ikasiz.
- Lankidetzeta eta talde-lana sustatzea.



## Curriculumaren zehaztapenak


## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 4 1,4 1 1,2	<b>5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.</b>	<p>5.1 Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiaren bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz.</p> <p>5.2 Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, haien artean ezartzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz.</p> <p>5.3 Ideia zientifikoak aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin erlazionatzea eta baloratzea, bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela onartuz.</p> <p>5.4 Natura- eta kultura-ondarea baloratzea eta babestea, hura ondasun komun gisa onartuz, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartuz eta berori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatuz.</p>	<p><b>A. Kultura zientifikoa</b></p> <p><b>2. Bizitza gure planetan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisia oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak.</li> <li>- Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak.</li> <li>- Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan.*</li> <li>- Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpitaldeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betiketzea.*</li> <li>- Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitata suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...).</li> <li>- Bizi-prozesua eta identitatearen eraikuntza: haurtzarora, nerabearora, gaztarora, heldutasuna eta zahartzarora. Bizitza eta heriotza. Elkarren mendekotasuna: gure bizitza garatzeko beste pertsona batzuekiko dugun beharra.*</li> </ul>



## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA (BIGARREN ZIKLOA)

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	<b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarri, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b>	<p>6.1 Pertsonen bizitzaren eta inguruneke elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuz.</p> <p>6.2 Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura iraunkor egokiak praktikan jartzea.</p> <p>6.3 Inguruneke arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuz.</p>	<p><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b></p> <p><b>4. Kontzientzia ekosoziala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek inguruneke paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera. Arintze-neurriak. Naturaren kontserbazioa eta babesak.*</li> <li>- Ekosistema naturalen eraldaketa eta degradazioa.</li> <li>- Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak.</li> <li>- Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa.</li> <li>- Bizi-ohitura jasangarriak. Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.*</li> </ul>
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3 1,2 4 1,4,5 4 1,3 2 1	<b>7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.</b>	<p>7.1 Historiaren etapak identifikatzea, gizadiak bizi izandako aldaketak deskribatuz, Antzinako Arora arteko gizarteke bizimoduak alderatuz eta kausalitateari, aldiberekotasunari eta segidari buruzko nozioak identifikatuz.</p>	<p><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b></p> <p><b>1. Egungo munduareke erronkak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurra eta hondamendi naturalak. Unibertsoan gertatzen diren dinamika, mugimenduak, elementuak, eta horien lotura Lurrean eta eguneroko bizitzan eta inguruneke eragina duten fenomeno fisiko jakin batzueke.*</li> </ul> <p><b>2. Gizarteak denboran zehar</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Natura- eta kultura-ondarea. Natura-gune eta kultura-gune babestuak eta horien kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Herrian. Horien erabilera, zaintza eta kontserbazioa.*</li> </ul>



## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSUZIALA


- \* Giza ekodependentzia barneratzea. Bizitzaren sarearen parte garela ohartzea.

- \* Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoetik ekozentrismora igarotzea.

- \* Lurreko bizitzaren funtzionamenduaren oinarriak zein diren jakitea: zikloak ixtea, eguzki-energia erabiltzea, aniztasuna handitzea eta ahalik eta lankidetzaren handiena izatea.

## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSUZIALAK

- \* Azaldu nola izaki bizidunak lurzorua osatzen duten, ura garbitzen duten eta airea garbitzen duten. Horrek gure biziraupenerako zer suposatzen duen jakitea.
- \* Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea/Ez adieraztea gizakiak ez dituela gainerako izaki bizidunak behar.



- \* Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.
- \* Natura gizakiek kontrola dezaketela edo kontrolatu behar dutela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.
- \* Balio handia ematea bizitzaren osoaren iraupenari, barne hartuta kulturalki gaitzespena eragiten digu (ornogabeak, adibidez).

- \* Azaldu nola izaki bizidunak lurzorua osatzen duten, ura garbitzen duten eta airea garbitzen duten.
- \* Ekosistema desberdinagoek egoera txarrei aurre egiteko gaitasun handiagoa dutela erakusten duten adibideak jartzea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSUZIALAK

- \* Ekodemokotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- \* Funtzio ekosistemiko nagusiak: ongarritzea, ura eta airea araztea, polinizazioa, klima erregulatzea, etab.
- \* Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- \* Baliabide energetikoek eta materialek eta ekosistemek eta klimak gizateriaren historian izan duten eragina.
- \* Biosfera gizartea eta ekonomia baino askoz ere handiagoa da, eta ulertzen ditu.

- \* Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.
- \* Natura zaintzearen garrantzia.
- \* Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean (ornogabeak barne) eta oreka ekosistemikoetan.

- \* Lurreko bizitzari eusteko oinarrizko funtzioak: fotosintesia eta materiaren zikloak ixtea bakterioen, onddoen eta ornogabeen ekintzari esker.

Lehen hezkuntza (LH3 eta LH4)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3

**IKASKUNTZA EKOSOZIALA**

- \* 8. Espezieak desagertzeko egungo tasak eta ekosistemen degradazioa galgatu beharreko premiazko arazotzat hartzea, eta hori nola egin jakitea.


**EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK**

- \* Biodibertsitate masiboaren egungo galeraz ohartaraztea.
- \* Erakutsi izaki bizidun baten galerak beste izaki bizidun batzuei eragiten diela.

**OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK**

- \* Biodibertsitatearen galeraren arrazoi nagusiak biodibertsitatea: habitatak aldatzea, natur-baliabideak kutsatzea eta gehiegi ustiatzea, hori guztia nekazaritzako industria-ereduarekin oso lotuta.

**Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan.** Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.



Lehen hezkuntza (LH3 eta LH4)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3



## Metodologia



### ESTRATEGIA

#### EREDU PEDAGOGIKOA:

Arazoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Gogoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Gamifikazioa



### ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ikuspegi  
sozioafektiboa

Ekintzarako  
ikaskuntza

Ikaskuntza  
aktiboa

Ikuspegi holistiko  
eta kritikoa



### TEKNIKAK

#### OHIKOAK:

Tailerrak

Ikus-entzunezkoak

Txoko edo  
ingurunezkoak

Entzute kolektiboa

Azalpenak talde  
handietan

